

## NAZIOARTEKO IKASLE-TXARTELA (ISIC)

Nazioarteko ikasle-txartela (ISIC - International Student Identity Card) mundu osoan dago onartuta. ISIC txartelarekin, deskontu eta zerbitzu bereziak izango dituzu garraio, ostatu, museo, antzoki, kultur gune eta **mundu osoko** leku historikoetan. [Abantailak ikusi](#).



ISIC txartela unibertsitateko, irakaskuntza ertainetako (DBH, batxilergoa, LH,...) eta eskola ofizialetako **ikasleentzat** da. Txartela ateratzeko, ikasturte horretan matrikula egin izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da. Nazioarteko ikasle-txartelak eskola-urtea **irauten** du eta baita hurrengo urteko irailetik abendura bitarteko hilabete tartearen ere (**2009ko irailaren 1etik aurrera egindako txartelak 2010era arte indarrean daude**).

### Eskakizunak:

- Adina: 12 urte baino gehiago. Ez dago gehieneko adin-mugarik
- Tasa: 6 euro
- Denbora osoz ikastea ofizialki onartutako zentroetan, hau da, astean gutxienez 15 orduz aritzea.

Zalantzarik baduzu, ordainketa egin aurretik, Gazte Informazio Bulego batean galdetu edo [gazteria@ej-gv.es](mailto:gazteria@ej-gv.es) helbidera posta elektronikora mezu bat bidali. Gogoratu ordainketa egin ondoren ez zaizula tasa itzuliko.

### Non eskatu:

Txartela **Internet** bidez (orrialde honetan dago formularioa) edo nazioarteko txartelak egiten dituen **edozein Gazte Informazio Bulegotan** (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa) eska dezakezu. Txartela jasotzeko nahitaez bulego batera joan behar da.

### Nola eskuratu ikasle-txartela:

javascript:abrirFormulario(%22O79Redirect.jsp?TARGET\_PAGE=O79FormulariosCarsServlet?TIPO\_CARNET=8&COD\_IDIOMA=E%22)1.- Zure txartela **eskatze** ko, [formularioa bete zure datuekin](#) eta eskaera-orria inprimatu. Beste aukera bat da txartelak egiten dituen edozein Gazte Informazio Bulegotara jotzea eta bertan emango dizute zure eskaera-orria.

2.- **Tasa ordaindu** (6 euro) eta ordainketaren agiria gorde.

- Internet bidez eskatzen baduzu, ordainketa Interneten (formularioaren urratsak jarraituz) edo banku sukurtsal batean egin dezakezu.
- Eskaera bulegoan egiten baduzu zure eskaera-orria eraman behar duzu banku sukurtsal batera.

Kontu zenbaki batean sartu behar dut dirua? Ez, eskaera-orria da bankura eraman behar duzun agiria ordainketa egiteko.

<http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58->

[801/eu/contenidos/informacion/sociedad\\_info\\_juven/eu\\_1794/informacion\\_e.html](http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/sociedad_info_juven/eu_1794/informacion_e.html)3.-

**Jaso ezazu zure txartela** [Araba](#), [Bizkaia](#) edo [Gipuzkoako](#) edozein bulegotan.

Txartela jasotzeko nahitaez honako **agiriak aurkeztu** beharko dituzu:

- NANA, pasaporte edo bizileku-txartela
- Tasa ordaindu izanaren egiaztatzea
- Txartelerako neurriko argazki bat
- Ikasle zarela egiaztatzen duen agiria. Normalean, nahikoa izaten da kasuan kasuko ikasturtean ofizialki onartutako zentro batean egindako matrikula aurkeztea.